


23

EUSKADIKO ORKESTRA

24



MOZART BRUCKNER

29

Apirila / Abril

19:30

euskadikoorkestra.eus

Pamplona / Iruña
BALUARTE

EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular:
Robert Treviño

2

KONTZERTINOA

CONCERTINO

Barennie Moon

I BIOLINAK / VIOLINES I

Beatrice Gagiu (1) (5)

Xabier de Felipe (4)

José Ignacio Aizpiri

Inmaculada Aramburo

Laura Balboa

Irene Echeveste

Marie Gaillard

Alexandre Kozouline

Oscar López

Maite Menéndez

Larraitz Oiartzabal

Ortzi Oihartzabal

Itziar Prieto

Maialen Rezabal

Cristina Vértiz

II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)

Xabier Gil (2)

Mikel Ibañez (4)

Marie Héloise Arbus (5)

Amaia Asurmendi

Nathalie Dabadie

Virgile Demillac

Ludwik Hamela

Anne-Marie Harmat

Antoni Kosc

Ricardo Ruiz

Igor Torre

BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)

Pawel Krymer (2)

Monika Mazur (4)

Maite Abasolo

Esther Alba

Pascal Arnaud

Natacha Dupuy-Scordamaglia

Justyna Janiak-Krymer

Arkaitz Martínez

Sergio Montero

Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK

VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)

Gabriel Mesado (2)

Flore Lefevre (4)

Natalia Díaz

Jacek Grabe-Zaremba

Jon Larraz

Beatriz Linares

Pascale Michaud

Ian Swedlund

KONTRABAXUAK

CONTRABAJO

Arkadiusz Maciejski (2)

Paloma Torrado (2)

Marc Sirera (4)

Victor Bogdanov

Mehmet Sönmez

Pierre Torrent

FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)

Bruno Claverie (2)

Ander Erburu

Oihana Kontxeso

OBOEAK / OBOES

Óscar Diago (2)

Javier Lecumberri (2)

Pascal Laffont

Hervé Michaud

KLARINETEAK

CLARINETES

Luis Cámara (2)

Juan Navarro (2)

Stéphane Langlois

Sara Zufiaurre

FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)

François Proud (2)

Yuan Dai

Anne Charlotte Lacroix

TRONPAK / TROMPAS

Marcos Cruz Pardeiro (2)

Adrián García Carballo (2)

Cristian Palau (2)

Ignacio Sánchez (3) (5)

Jean-Luc Casteret

Xabier Sarasa

Salvador Tudela

TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)

Bernabé García (2)

Jesús Castillo

Miguel Echepare

TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)

Christophe Sánchez (2)

Frédéric Boulan (5)

Daniel Ruibal

TUBA

Oscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA

TIMBALES Y PERCUSIÓN

Igor Arostegui (2)

Anthony Lafargue (2)

Héctor Marqués (2)

Irene Rodríguez (3) (5)

Xabier Peña

HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

(1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino

(2) Bakarlaria / Solista

(3) Bakarlari-laguntzailea / Ayuda de solista

(4) Lehen tuttia / Primer tutti

(5) Aldi baterako kontrataazioa / Contratación temporal

MOZART
BRUCKNER



MARIE JACQUOT
Zuzendaria ° Directora



MARKUS SCHIRMER
Pianoa ° Piano

EGITARAUA ^ PROGRAMA

I

WOLFGANG AMADEUS MOZART (1756-1791)

Kadentzia / Cadencia: Markus Schirmer

Concierto n°20 en re menor para piano y orquesta, K.466 [30'] 3

- I. Allegro
- II. Romanza
- III. Rondo: Allegro assai

II

ANTON BRUCKNER (1824-1896)

Ed. Leopold Nowak, 1954/2003

Sinfonía n°7 en mi mayor (Cahis 13), ‘Lírica’ [64'] 3

Argitaletxea / Edita: Musikwissenschaftlicher Verlag

- I. Allegro moderato
- II. Adagio: Sehr feierlich und sehr langsam
- III. Scherzo: Sehr schnell
- IV. Finale: Bewegt, doch nicht schnell

Brucknerren **7. Sinfonia** Euskadiko Orkestraren azken aldiko historian nabarmendu den lan bat da: gure zuzendari titular Robert Treviñok lan horrekin egin zuen debuta 2016ko martxoan, eta harreman artistiko sendo bat abiarazi zuen horrela. Hala, orkestrak lorpen handiak erdietsi dituen aldi bat izan da, eta musika-une ahanzteinak eskaini dizkie euskal ikusleei. Orain, partitura paregabe hori Euskadiko Orkestraren atriletara itzuliko da, baina beste batuta baten zuzendaritzapean: **Marie Jacquot**, etorkizun handiko zuzendari gaztea, Frantziako. Vienako Orkestra Sinfonikoko zuzendari nagusi gonbidatua eta, datozen denboraldietatik aurrera, Danimarkako Errege Operaren eta Koloniako WDR Orkestraren titularra.

Brucknerren lanean murgildu aurretik, **Wolfgang Amadeus Mozart**en **Pianorako**

20. Kontzertua entzungo dugu, tonalitate minorrean idatzi zituen bi kontzertuen artean lehenengoa. Mozartek 1785ean konposatu zuen, ospearren gailurrean zegoenean Vienan. Kontzertu horrek arrakasta lortu zuen estreinatu eta berehala, eta Mozartek berak solista lanak egin zituen, orkestra teklatutik zuzenduz. XIX. mendean, Mozarten pianorako kontzertu asko jotzeari utzi zitzaion, baina **20. Kontzertua** salbuespena izan zen, haren *pathos* ia errromantikoari esker. Errepertorioan mantendu zen, eta, besteak beste, Hummel, Beethoven, Clara Schumann, Johannes Brahms eta Ferruccio Busoni pianojoleek sarritan jo zuten eta kudentziak idatzi zituzten kontzertu horretarako. Oraingoan **Markus Schirmerrek** joko du, austriar pianojole entzutetsu eta Grazeko Musika Unibertsitateko irakasleak. Jacquotek bezala, debuta egingo du Euskadiko Orkestraren Denboraldian.

4 Anton Bruckner figura berezi bat da Europako musikaren historian: alde batetik, haren lana Errromantizismo musicalaren adierazgarria da, eta bestetik, oso pertsonala eta espezifikoa denez gero, Errromantizismoko beste egileengandik bereizten da, trebeziaz garatu zuen ingeniaritza musicalak berealdiko osagaiak eta erretorika zintzoa eta zinez zirraragarria uztartzen dituelako hainbat forma baliatuz, garai horretan ia aurrekaririk ez zuen iraupena zutenak.

Aitorta publikoa lortzeko bidea neketsua izan zen: sinfonista wagnertarra izatea leporatu zioten eta, nahi gabe, Vienan Brahmsen alde eta Wagnerren alde zeuden fakzioen arteko borrokan nahasi zuten; gainera, Eduard Hanslick kritikari ahalguztidunak haren musika gorroto zuen, eta dardo pozoituak eskaini zizkion urtetan. Pazientziaz jardun zuen bi hamarkadaz, eta ez zuen amore eman. Horren ostean, 60 urte zituela jada, halako arrakasta bat lortu zuen nazioartean, **7. Sinfonia** 1884an estreinatu zuenean. Neurri handian, Arthur Nikisch zuzendari handiak partitura sutsu defendatzeari esker gertatu zen. Hain zuzen, estreinaldia zuzendu zuen Leipzigen, eta hau esan zuen: «Hemendik aurrera, Brucknerrek dagokion aitorta jaso dezan lan egiteko beharrean nago».

Michael Steinbergen arabera, Brucknerrek «musikaren eskala, prestaketa eta suspensea, misterioa eta eduki etikoa Beethovenengandik ikasi zituen; Schubertengandik, berriz, Austriako tonu espezifikoari buruzko zertxobait, eta harmoniarengandik, manierismo gutxi batzuk ez ezik, tempo motelaren zentzuari buruzko guztia eta amplitude bat hedatzeko garaian, musika instrumentalean ezagutzen ez zena».

Hiru figura horien artean, Brucknerrek Wagner miretsi zuen gehien, ezbairik gabe. Wagnerren musika-ideien aldeko zaletasuna oso esplizitua izan zen eta, horren eraginez, oztopo bat ere izan zen Brucknerren karreraren hasieran, ikusi dugun moduan. Haren ikuspegia ez zetorren bat Brahmsen aldekoek Vienan sustatutako iritzi-korrontearekin. Eta Brahmsek, berezkoa zuen ironiarekin, Brucknerren lanak «boa constrictor sinfonikoak» zirela esan ere egin zuen. Izan ere, 7. *Sinfonia* Leipzigen estreinatu zen lehenago Vienan aurkeztuz gero Hanslicek idatz zezakeen kritikaren beldurrez.

6. *Sinfonia* Wagnerri eskaini eta gero, konpositorearen aurak mi maiorreko sinfonia bati ekin zion 1881etik 1883ra bitarte, lehen mugimenduak soilik urtebeteko lana eskatu zion eta. Brucknerrek konposizio-prozesuan zehar Felix Mottli bidali zion gutuna ospetsua da: «Maisua [Wagner] laster hil zitekeela bururatu zitzaidan eta, orduan, *adagioaren* do minorreko abestia nigana etorri zen». Brucknerrek lau tuba wagnertar sartu nahi izan zituen sinfonia horren orkestrazioan eta, profezia baten modura —edo ez, jakina baitzen *Nibelungoaren eraztunaren* sortzailea gaixo zegoela—, Wagnerrentzako hilondoko omenaldi bat izan zen. Gutuna idatzi eta hilabetera hil zen.

Lehen mugimenduan, hiru abesti aurkezten dira: lehenengoa biolontxeloek erakusten dute eta, Brucknerren hitzetan, amets batean entzundako melodía bat da. Sarrerak bi minuto inguru iraun eta gero, bigarrena abesti liriko bat da, oboeak eta klarineteak egiten dutena. Pixkanaka, *fortissimo* handi baterako bidea egiten du. Hirugarrena, bere aldetik, nekazarien estiloko dantza bat da. Ondoren, aurreko ideien elementuak berrerabilten dituen garapen handi bat dator, laburbilketara iritsi arte: hasierako abestiarak dakarzkigu gogora, eta berrogeita hamahiru konpaseko koda itzel batera garamatza.

Adagioa Brucknerren hiletan jo zen, eta goian aipatu den Wagnerrentzako elegia tristea da. Hemen, tuba wagnertarrek zeregin nabarmena dute, mugimendua hiletakorral batekin abiarazten baitute. Ondoren, erritmo hirutarrerko melodía liluragarri bat dator, eta, amaitutakoan, mugimenduak bere bidea jarraitzen du diskurtso flkuatuzaile batekin: klimax bikain batzuk eraikitzen ditu, baina lasaitasunez eta etsirik amaitzen da.

Scherzoa Brucknerrek konposatutako lehen mugimendua izan zen, eta nekazarien dantza bat da, indar handikoa. Hasi bezain laster, Brucknerrek «oilari baten kukurruku» zeritzona entzuten da: tronpeta-motibo labur bat erritmo *ostinato* baten gainean. Oldarra etengabea da mugimendu honetan, harik eta hirukotea iristen den arte, *gesangvoll (cantabile)* jo behar den pasarte ameslari bat. Scherzo guztieta bezala, lehenengo sekzioa amaieran errepikatzen da.

Finalea abesti jauzilarri batekin zabaltzen da. Eta bi berri datozen gero: horietako bat estilo koralekoa da, eta sonata gisako *allegro* bat dator gero, nahiz eta ez den oso hautu ohikoa amaierako mugimendu baterako. Baina Bruckner malgutasunez hurreratzen zaio eredu formal horri, eta klimax ugari eta izaera handiko aldaketa dramatikoak sartzen ditu. Bukaerako konpasetan, sinfonian —ia 70 minuto lehenago— entzundako lehen abestiaren aldaera bat dator, amaiera asertibo eta baikorraren protagonista moduan, mi maior distiratsu batean.

La *Sinfonía nº7 de Bruckner* es una obra señalada en la historia reciente de Euskadiko Orkestra: con ella debutó, en marzo de 2016, nuestro director titular Robert Treviño, dando inicio a una sólida relación artística que ha traído grandes éxitos a la orquesta y momentos musicales inolvidables para el público vasco. Hoy, esta partitura monumental volverá a los atriles de Euskadiko Orkestra pero bajo la dirección de otra batuta, la de **Marie Jacquot**, una de las jóvenes directoras más prometedoras de Francia, directora principal invitada de la Orquesta Sinfónica de Viena, y que a partir de las próximas temporadas asumirá la titularidad de la Ópera Real Danesa y de la Orquesta WDR de Colonia.

Antes de internarnos en Bruckner, escucharemos una obra el **Concierto para piano nº20 de Wolfgang Amadeus Mozart**, el primero de los dos que escribió en tonalidad menor. Compuesto en 1785, en el apogeo de la popularidad de Mozart en Viena, cosechó un éxito inmediato tras su estreno, en el que el propio Mozart interpretó la parte solista dirigiendo la orquesta desde el teclado. Durante el siglo XIX, aunque muchos de los conciertos para piano de Mozart dejaron de interpretarse, no ocurrió lo mismo con el Concierto nº20 gracias a su *pathos* casi romántico. Se mantuvo en el repertorio y pianistas como Hummel, Beethoven, Clara Schumann, Johannes Brahms y Ferruccio Busoni, entre otros, lo tocaron a menudo y escribieron cadencias para él. En esta ocasión lo interpretará **Markus Schirmer**, prestigioso pianista austriaco y profesor en la Universidad de la Música de Graz, y que debuta, al igual que Jacquot, en la Temporada de Euskadiko Orkestra.

Anton Bruckner es una figura peculiar dentro de la historia de la música europea: por una parte, su obra es muy representativa del Romanticismo musical, y al mismo tiempo es tan personal y específica que lo diferencia claramente del resto de autores del Romanticismo, por su habilidad para desplegar, a través de formas de una extensión casi sin precedentes para la época, una ingeniería musical que aúna lo monumental con una retórica franca y profundamente emocionante.

6 Su camino hacia el reconocimiento público fue arduo: le habían colgado el sambenito de «sinfonista wagneriano» y se vio envuelto, sin desecharlo, en la lucha entre las facciones pro Brahms y pro Wagner de Viena, y el todopoderoso crítico Eduard Hanslick, que detestaba su música, se dedicó a lanzarle dardos envenenados durante años. Tras casi dos décadas de paciencia y no ceder al desaliento, Bruckner alcanzó por fin cierto éxito internacional a finales de 1884 con el estreno de la *Sinfonía nº7*, cuando contaba ya con 60 años y gracias, en gran medida, a la ardorosa defensa que de la partitura hizo el gran director Arthur Nikisch, quien dirigió el estreno en Leipzig y afirmó que, «desde este momento, veo como mi obligación trabajar para que Bruckner sea reconocido».

Según Michael Steinberg, Bruckner «aprendió de Beethoven la escala, la preparación y el suspense, el misterio y el contenido ético de la música; de Schubert, algo relativo a un tono específicamente austriaco y mucho sobre el tratamiento de la armonía; y de Wagner, junto con algunos pocos manierismos, todo sobre el sentido del tempo lento y una amplitud al desplegarse que era previamente desconocida para la música instrumental». Entre esas tres figuras, la que Bruckner adoró por encima de cualquier consideración fue Wagner. Su pasión por las ideas musicales wagnerianas fue tan explícita que, como hemos visto, llegó a convertirse en un obstáculo en los inicios de su carrera, ya que iba contra la corriente de opinión promovida en Viena por los defensores de Brahms —compositor que, con la ironía que le caracterizaba, llegó a afirmar que las obras de Bruckner eran «boas constrictor sinfónicas»—. De hecho, el

estreno de la *Sinfonía nº7* tuvo lugar en Leipzig por temor a la crítica que pudiera escribir Hanslick si la presentaba antes en Viena.

Tras una *Sexta Sinfonía* dedicada a Wagner, el aura de este compositor volvió a rodear la creación de esta nueva sinfonía en mi mayor, escrita entre 1881 y 1883 —solo el primer movimiento le llevó todo un año de trabajo—. Es célebre la carta que Bruckner envió a Felix Mottl durante el proceso de composición: «Se me cruzó por la mente que el maestro [Wagner] podría morir pronto, y entonces el tema en do sostenido menor del *Adagio* vino a mí». Bruckner quiso introducir también cuatro tubas wagnerianas en la orquestación de esta sinfonía que, proféticamente —o no tanto, pues era bien sabido que el creador de *El anillo del nibelungo* estaba enfermo—, terminaría convirtiéndose en un homenaje póstumo a Wagner, quien fallecería en Venecia un mes después de escrita dicha carta.

En el primer movimiento, se presentan tres temas: el primero lo exponen los violonchelos y es una melodía que Bruckner afirmó haber escuchado en un sueño. Tras aproximadamente dos minutos de introducción, llega un segundo tema lírico expuesto por el oboe y el clarinete, que va avanzando hacia un gran *fortissimo*. El tercer tema, por su parte, es una danza de estilo campesino tras la que comienza un gran desarrollo que reutiliza elementos de las ideas anteriores, hasta llegar a una recapitulación que recuerda los temas iniciales y que conduce a una enorme coda de cincuenta y tres compases.

El *Adagio*, que se tocó en el funeral de Bruckner, es la triste elegía a Wagner citada más arriba. Las tubas wagnerianas tienen aquí un papel destacado, ya que abren el movimiento con un coral fúnebre. Llega después una encantadora melodía en ritmo ternario, tras la que el movimiento prosigue su curso con un discurso fluctuante que construye algunos imponentes clímax, pero que finaliza de forma tranquila y resignada.

El *Scherzo* fue el primer movimiento que compuso Bruckner y es un baile campesino de gran brío. Nada más comenzar, se oye lo que Bruckner llamó «el canto de un gallo», un breve motivo de trompeta sobre un ritmo *ostinato*. El ímpetu es una constante de este movimiento hasta la llegada del trío, un soñador pasaje que debe tocarse *Gesangvoll* (cantabile). Como en todo *scherzo*, la primera sección se repite al final.

El *Finale*, que se abre con un inconfundible tema de carácter saltarín, presenta a continuación dos nuevos temas, uno de ellos de estilo coral, para establecer nuevamente un desarrollo de *allegro* de sonata, una elección no muy común para un movimiento final. Pero el acercamiento de Bruckner a este modelo formal es flexible, introduciendo numerosos clímax y giros dramáticos de gran carácter. En los compases finales, regresa una variación del primer tema escuchado en la sinfonía —casi 70 minutos antes— para protagonizar una conclusión asertiva y optimista en un resplandeciente mi mayor.

— MIKEL CHAMIZO —

HURRENGO ABONU KONTZERTUA • PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

LALO
DVORAK
Maiatz 14 Mayo

| 19:30



SARRERAK ENTRADAS

10€ < 38€

euskadikoorquestra.eus
baluarte.com
Leihatila - Taquilla



ELECTRIFYING A SUSTAINABLE FUTURE

Gure sorreratik, duela 50 urte baino gehiago, oso argi izan genuen gure helburua: **gizartearren elektrifikazioan laguntzeko konpromiso** irmoarekin lan egitea, energia sortzeko, transmititzeko, biltegiratzeko eta kontsumitzeko modu eraginkorrago eta iraunkorrago baten bidez.

Gaur egun badakigu egokia izan zela **teknologiaren aldeko apustua** egitea, mundu bizigarriago baterantz hurbiltzen gaituen zubi gisa. Konbentzimendu horrekin, eta gure **taldearen eguneroko ahaleginari esker**, pausoz pauso aurrera egiten jarraitzen dugu, begirada aurrerapena, jasangarritasuna eta pertsona guztientzako ongizatean jarrita.

Ingeteam

www.ingeteam.com